

Prentsa-oharra

Haize-sektorean lehiakortasuna bultzatzeko teknologia igarlea

- ▶▶ *Haize-parkeetako mantentze-lanen prozesuak optimizatzeko asmoa dauka Mainwind+ proiektuak, eta IK4-TEKNIKERek parte hartzen du bertan*
- ▶▶ *Osagaiak denbora errealean monitorizatzeko irtenbideak garatuko dira, bai beren fidagarritasuna frogatzeko, bai hutsegiteak murrizteko*
- ▶▶ *Geldialdien ondoriozko energia-galerak %80 murriztea espero da, eta jarduera handien maiztasunak %30 eta ikuskapen-orduak %15 egitea behera*

(Eibar, 2017ko urriaren 16a).- Haize-sektoreak teknologikoki aurreratuak diren irtenbideak behar ditu, aerosorgailu fidagarri eta efizienteagoak garatzeko eta horiek optimizatzeko; offshore instalazioetan, batez ere. Gauzak horrela, monitorizazio-sistema eta mantentze-lanetarako sistema berriak bilatzen dituzte enpresek, huts egiteko arriskuak murrizteari begira, haizea aprobeztatuz sortzen den energiaren lehiakortasuna sustatzeko horrela.

Norabide horretan aurrera egiteko xedez, Mainwind+ proiektuan ari da parte hartzen [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoa, haize-parkeetako mantentze-lanen prozesuak optimizatzeko asmoa baitauka horrek.

2013an Mainwind proiektuarekin abiarazi zen apustuarekin jarraitzea dakar ekimen horrek. Mainwind proiektuan, haize-instalazioetako osagaiak monitorizatzeko eta mantentze-lan igarlea egiteko sistema berri bat diseinatu zen.

2015ean amaitu zen lehenengo fase hori, eta, bertan, monitorizazio-teknologiak garatu ziren; adibidez, lineako sentsoreak, hutsegiteak iragartzeko sistema eta arriskuak ebaluatzeko sistema, haize-parkeen jardunean errendimendua (bai onshore, bai offshore) maximizateari eta aerosorgailuen belaunaldi berri baterako osagai fidagarriak ekoizteari zuzendutakoak horiek.

Aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua egitea ekarri zuen Mainwind proiektuak; itsas-parkeen ezarpenean, batez ere. Izan ere, horietan, besteren artean, klimak eta kokalekurainoko distantziak baldintzatzen dituzte monitorizazioa eta mantentze-lanak.

Orain, eta iazko uztailan abiarazi zen Mainwind+ proiektuaren esparruan, zeina 2018ko abendura arte luzatuko den, beste urrats bat eman nahi da, eta irtenbide espezifikoak eskaini nahi zaizkie osagaien fidagarritasuna frogatzeko eta kostuak murrizteko xedez erabileran dauden osagaien jokaera denbora errealean ezagutzea eskatzen duten fabrikatzaileei.

Orain arte garatu diren osagaiak sortzen duten informazioaren ahalmen osoa ustiatzea da erronka, eta datu horien sensorizazio-, komunikazio-, biltegitratze- eta ustiapen-teknologia adimendunak ematea, negozio eolikoaren balio-kate osoan integratuz horiek. Horrela, erabileran dauden piezen jokaera iragartzea, akats-arriskua murriztea eta ordezkioen optimizazio logistikoa ahalbidetuko ditu sistema horrek.

Parkeetako kudeatzaileen ustez, Mainwind+ proiektuan garatu diren teknologien ezarpenari esker %80 murriztu ahalko dira geldialdiengatiko galera energetikoak, %30 jarduera handien maiztasunak eta %15 ikuskapen-orduak.

Mainwind+ proiektua [Hazitek](#) programaren barruan garatzen da, eta 6,5 milioiko aurrekontua dauka. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak gidatzen dituen industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektuei laguntzen die Hazitek programak, eta Euskadiko enpresek eta zentro teknologikoei hartzen dute parte bertan.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728

////////////////////////////////////